


**VILLA ORIANA**  
D MAILA

**LA FE PASEALEKUA 31**



**Augusto Agirre, 1916**

#### **Deskribapena**

Villa Txokotxiki eta Villa Jamparekin batera antzeko etxez osatu lerroa egiten du, plataforma baten gainean oinarrituta La Fe pasealekuko bi tarteren artean. Oinplanoa T forma egiten duten bi ataletan dago banatuta eta, bitxia bada ere, dorrea da kalearekiko atzeraemana dagoena, bolumen irtena dela isurki biko estalki horma pikoduna daukana. Eraikinaren zatitze horrek nabarmendu egiten du, atzera, argia eta ikuspegiak lortzeko bilatutako altuera, La Fe pasealekuko ibarbidea bezalako leku laioz batean. Beheko solairua, lehena eta dorrearen amaieraren maila berean dagoen teilatupekoa dauka. Dorreak lau isurkiko teilatua dauka, bilbadura-marrazkiak teilatu-hegalaren azpian, eta beste atala estilo neoeuskaldunaren arabera dago errematatuta, goiko balkoiarekin baterako murru aurreratuez. Sarrerak zutabeak dauka alde banatan, geroago itxi zuten terrazari eusteko.

#### **D mailako berariazko babes araubidea**

- 1- Babesetik kanpo lagatako fatxadako elementu edo alderdiak: terrazaren itxitura. Alboetako bi fatxadetako baoen konfigurazioa.
- 2- Fatxadako elementu edo alderdi iraunkorrak: harrizko elementuak, zurezko elementuak, bilbadurak eta estalkiak.
- 3- Esku hartzeko murriztapen partikularrak: jasodurarik gabe. Alboetako bi fatxadetan baoak irekiz gero, egungo baoen proportzio berari eutsiko diote, eta zati itsuaren azalera handiena gorde beharko dute baoen azalera osoarekiko.
4. Nahitaezko lehengoratzak: ez.